



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 11
Urtea/Año 2012
Azaroa/Noviembre

Oroigarriak

Azaroaren 22an, geure Zaindariaren jai ofiziala izango da. Eskolan, jai 19ra aldatu dugu. Egun horretan, Eskola itxita izango da. Ospatzeko entzunaldia 21ean izango da; etorriko zarela espero dugu. Ba al zenekien Santa Zezilia, Erromako Zezilia, kristaua bihurtutako noble erromatarra zela eta, tradizioaren arabera, 180 eta 230 urteen artean, bere fedea zela eta, martiritzatua izan zela?

Eliz katolikoan, hainbaten Zaindaria da: musikariena, poeta, itsuena (Siracusako Santa Luziarekin batera) eta Frantziako Albi, Estatu Batuetako Nebraska Estatuko Omaha eta Argentinako Mar del Plata hirietakoa.

Bere ikurrak, organoa, lautea eta arrosak dira. Bere ohorez, XIX. mendeko eliz-musika katolikoa eraberritzeko mugimendu garrantzitsu bat cecilianismo izenaz izan zen ezagutua.

Urriaren 20an, Bilboko Atxuriko Gizakundeko elizan, Hamaika Kamerata Flauta Taldeak eta "Andrés Isasi" Akordeoi Hirukoteak, Bilboko Jatorki Abesbatzak urtero antolatzen duen XV Agiña Memorialean parte hartu zuten. Hirurehun lagunetik gora izan ziren emanaldia entzutera etorri zirenak eta gogotsu zoriondu zizkigutenak eskainitako emanaldiak.

Kontzertu Didaktikoak

Musika Eskolan antolaturiko kontzertu didaktikoen hamargarren edizioa izango dugu hauxe. Goizez, herriko ikastetxei zuzendutakoak dira, musika-tresnen mundua erakusteko asmotan. Urtero, 1.800 dira entzutera datozen ikasle getxotarrak. Arratsaldeko saioa, berriz, geuretzat da. Hilabete honetan, azaroaren 13an, asteartea, 17:30ean, hari-tresnen Kontzertu Didaktikoa izango dugu.

Kontzertu Didaktikoak funtsezkoak dira musika-tresnaren hastapenei buruzko jardueran. Gelan bertan ere egiten dugun tresna bakoitzaren aurkezpenaz gain, bai banan-banan bai eta taldean ere entzuteko aukera aparta da, errepertorio atsegina eta hezigarriaz gozaturik.

Musika-tresnaren hastapenei buruzko jarduera egin nahi ez, musika oneko une honetaz gurekin gozatzeko aprobetxatu.

"Gintonic"-en emanaldia

Gure flauta-irakaslea den Mario Clavellek, duela urte batzuk, "Gintonic" laukotea sortu zuen. Gaur egun, Ramón Escobar, Dabid Martín, Gorka Diez eta Mario Clavell bera dira "Gintonic"-en kideak. Ibilbide luzeko eta mundu osoko agertokietan izandako eskarmentu handiko musikariak dira guztiak, Euskadiko zentro ospetsuenetako irakasleak izateaz gain. Beraien ekite-eremua jazz izan arren, duten errepertorioa betiko leloengatik aldendu eta rock, tango edo world music-etik datozen musikekin bat egiten du.

Kontzertu honetan, Ausart Records-ekin grabatu eta argitaratutako "Gintonic" izeneko beraien azken lana aurkeztuko digute.

Ikaslearen dekalogoia

Musika ikasteak eguneroko praktika eskatzen du.

Musika-ikasketetan izandako arrakasta, hein handi batean, egunero denbora batez horretan jardutean datza. Musika, horretarako, kirola bezalakoa da. Partida bat jokatu edo lasterketa batetan korrika egin ahal izateko egunero entrenatu eta sasoi onean egon behar dugun bezala, egunero une batez musika egiten emanda azkarrago ikasten duzula ohartuko zara. Egin proba, ikasten saiaturia izan eta laster emaitza onak izango dituzula ikusiko duzu.

Agenda

Azaroa

Azaroak 3: "Gintonic" jazz-rock laukotearen kontzertua, 19:30ean. Sarrera doan.

Azaroak 13: Hari-tresnen kontzertu didaktikoa. 10:45ean ikastetxeentzat; 18:00etan Musika Eskolako ikasleentzat eta gainerako publikoarentzat.

Azaroak 21: Santa Zezilia eguneko entzunaldia, 19:00etan. Sarrera doan.

Azaroak 29: Piano-ikasleen emanaldia, 19:45ean. Sarrera doan.